

TXOSTEN ADOSTUA

LEGAZPIKO ESKOLAKO AGENDA 21

SARRERA

Arratsalde On!

Aurten ere hona etorri gara Legazpiko hiru ikastetxeetako ordezkariak zuen aurrean ikasturte honetan Eskolako Agenda 21aren barruan egindako lanaren berri emateko prest. Lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako 702 ikasle aritu gara lanean, ENERGIAREN gaia herrian, eskolan eta etxean aztertzen.

Gutako batzuk herriko argiztapenari buruzko zenbait informazio jaso genuen herriko argiketariak emanda eta agenda 21eko teknikariaren eskutik, jakin ere, Legazpin garapen jasangarriaren aldeko lan horretan, kaleko argiztapenak sortzen duen argi kutsadurari buruzko ikerketa bat burutu dela.

Guk egindako lan honekin tokiko agenda 21ari ekarpen berri bat egin nahi diogu, landu ditugun arlo hauetan batik bat:

- Gure ohiturak energiarekiko
- Energiaren erabilera desberdinak herriko kaleetan
- Herriko jendearen iritziak eta ohiturak
- Gure energia kontsumoak beste herri batzuenekin alderatuta
- Gure aiton-amonen garaietako energia kontsumo ohiturak gurearekin alderatuta
- Eta azkenik enpresa, denda, zein udal egoitzetako energiaren erabileraren azterketa

Espero dugu beraz zuen interesekoa izatea.

GURE OHITURAK AZTERTZEN

INKESTAK ETXEKOEI ETA AUZOKIDEEI

Energiari buruzko etxeko ohiturak aztertu ditugu eta hau ikusi dugu:

- Gure etxeetan orokorrean argiak, musika aparatuak eta telebista behar ez direnean itzalita egoten dira. Dena den konpromiso hau har dezakegu telebista urrutiko agintetik ez itzaltzea baizik eta aparatu bertatik, mamu kontsumoa ez izateko.
- Gure joko askotan pilak erabiltzen ditugu eta hemendik aurrera berriz kargatzen direnak erabiliko ditugu.
- Herritik zehar mugitzeko oinez egiten dugu batik bat eta distantzia handiagoak direnean autoz. Proposatzen dugu ibilaldi luzeak egiterakoan garraio publikoa gehiago erabiltzea (autobusa eta trena eskualdean mugitzeko) eta horretarako zerbitzuak maizago beharko genituzke. Etxean honen propaganda egiten konprometitzen gara.
- Gabonetako argiztapena ez dugu beharrezkoa ikusten. Nahiz eta kontsumo baxuko bonbillak erabili, epea gehiago murriztu beharko litzateke. Kaleak beste era batera apaindu daitezkeela uste dugu: adibidez:
 - ✘ Gabonetako zuhaitzak argirik gabe jarriz
 - ✘ Loreekin, zuhaitzekin edo egurrezko figurekin kaleak apainduz

Etxeko eta auzokoei egindako inkesten ondorio nagusienak hauek izan dira:

- Kale batzuetako argiztapena ez omen da oso ona
- Udalak energia aurrezteko hartutako neurriak jende askok ez ditu ezagutzen, beraz proposatzen dugu informazio gehiago pasatzea herritarrei eta kontzientzia zabaltzen saiatzea.

- Jendeak energia aurrezteko neurri errazak hartzeaz arduratzen da (termostatoak erabiltzea, kontsumo txikiko bonbillak erabiltzea,...) baina aparatuak erosteko orduan prezioari eta kalitateari begiratzen zaio gehiago energia eraginkortasun mailari baino, eta hor konturatu gara jende gutxi ezagutzen duela eraginkortasun kodeak ematen duen informazioa. Beraz gustatuko litzaiguke jendeak aparatuak erosterakoan energia eraginkortasuna kontuan hartzea eta gutxi kontsumitzen dutenak erostea. Gu saiatuko gara ditugunak behar bezala erabiltzen.
- Berogailua ahal den gutxien erabiltzen konprometitzen gara eta argiak beharrezkoak direnean bakarrik pizten.

ENERGIA MUNDUAN, EUSKAL ERKIDEGOAN, HERRIAN ETA ETXEAN.

ONDORIOAK:

Munduko beste herrialde askotako energia kontsumoa gure herrialdekoa baino askoz baxuagoa dela konturatu gara. Azpigaraturik daude.

- Euskal Herrian energia ez berriztagarriak erabiltzen dira gehienbat (erregai fosilak: gas naturala, petrolioa..., ikatza etab.). Honela, kutsadura handia sortzen da, berotegi efektua areagotzen laguntzen dugu eta bestalde, kanpoko herrialde batzuekiko menpetasuna sortzen da. Honek, garraio bide eta azpiegiturak egin beharra eta garraioan isurketen arriskua suposatzen du. Gainera, energia iturri horiek, agortu daitezke.

Energia berriztagarriak ordea, ez dute poluzio atmosferikorik sortzen eta ez dira agortzen. Gainera, hauekin ez ginateke beste herrialde batzuen menpe izango.

- Kiotoko helburuetatik nahiko urrun gabiltzala ondorioztatu dugu. (CO₂ asko botatzen dugu atmosferara).

PROPOSAMENAK:

- Azpigaratutako herrialde hauek beraien kasa garatzen laguntzeko eta modu honetan herrialdeen arteko desberdintasunak gutxitzeko, Udalak beste herrialdeetara laguntzak bidaltzeko aurrekontuak indartzea proposatzen dugu: aurrekontuen %0,7a gutxienez. Gai honi lehentasun handia eman diogu.
- Gure herritik teknologia eraman (eguzki plakak, lurra lantzeko baliabideak: adibidez aitzurrak, bertako produktuak beraiek kudeatzeko.)
- Herrialde hauetara arropak, elikagaiak eta sendagaiak bidali.
- Hauekin, bidezko merkataritza bideak ireki.
- Herri mailan gutxiago kutsatzen duten energia berriztagarrien aldeko apustu serioa egitea. Hala nola, plaka fotovoltaikoen bitartez eguzki energia aprobetxatzea, energia eolikoa...
- Eraikin publikoetan (eskoletan, kultur etxean...) nahiz etxeetan plaka fotovoltaikoen erabilera nahiz energia aurrezteko beste sistema berriak bultzatzea.
- Herriko faroletan eguzki plakak jarri.
- Udaletxeak, herrian egiten diren etxe berriek, energia berriztagarriekin funtziona dezaten, bermatu dezala.
- Lantegietan filtroak ipini arazi.
- Berokuntza sistemarako eguzki energia erabiltzea.
- Zoruko berokuntza sistemak jartzea.
- Kontzientziazteko kanpainak egitea (adib: jendeak autoa horrenbeste ez erabiltzeko, edo autoa konpartitzeko...)

ALDAKETAK ENERGIA KONTSUMOAN

ONDORIOAK:

Gure ohiturak aztertuz, eta gure aiton-amonen garaietakoekin konparatuz, gaur egun energia askoz ere gehiago kontsumitzen dugula konturatu gara. Gure bizi maila orokorrean hobea da, baliabide gehiago ditugulako eta bizimodu erosoagoa daukagulako, hala ere, energia asko alperrik gastatzen dugu.

PROPOSAMENAK:

- Argiztapen sistemen eraginkortasuna hobetu (energia hobe aprobetxatzeko). Adibidez, lehenago esan duten bezala, herriko ekipamenduetan ohizko bonbillak kontsumo baxuko bonbillengatik aldatzea.

KONPROMISOAK:

- Energia aurrezten saiatu: berriro kargatzen diren pilak erabiliz, argiak eta ordenagailuak itzali behar ez ditugunean, telebista guztiz itzaliz (stand by egoeran ez utziz), berogailua beharrezkoa denean bakarrik erabiliz.

ENERGIAREN DIAGNOSIA UDAL EGOITZETAN, ELEKTRAGAILUEN DENDETAN ETA ENPRESETAN.

ONDORIOAK.

Eraikuntza publikoak aztertzerakoan:

- Orokorrean energiaren kontsumoa azken urteetan handitzen doa, hau oso nabarmena da zaharren egoitzan.
- Kultur etxean neguan berogailuak gehiegi berotzen du eta udan ere ez da eraikuntza freskatzen, beti egiten du beroa.
- Gizarte zentroan hotza nonahi sartzen da. Eraikuntza zaharra denez gaizki isolatuta dago.
- Kiroldegian argitzeko fluoreszenteak erabiltzen dira eta saiatu zirenean kontsumo baxuko bonbillak jartzen, lapurtu egin zituzten.
- Udaletxean kontsumo baxuko bonbillak pixkanaka jartzen ari dira.

Elektragailuen dendetan:

- Herritarrak elektragailuak erostera joaten direnean ez diote begiratzen energiaren eraginkortasunari baizik eta aparatuaren markari eta bizi iraupenari.
- Energia eraginkortasun handiko aparatuak ateratzean daude: A+ bezala ezagutzen direnak.
- Pilak erosteko orduan jende gehienak nahiago du erabili eta bota egiten direnak, ez hainbeste berriro kargatzen diren horietakoak.

Enpresetan:

- Orokorrean, erabiltzen diren makinak ez dute energia eraginkortasun oso handia.
- Azken urteetan energiaren kontsumoa handitzen doa.
- Enpresetako arduradunak prest daude energia aurrezteko.

PROPOSAMENAK.

Udalari zera proposatzen diogu:

- Estudiatu beharko litzateke ea zergatik gastatzen den geroz eta energia gehiago.

- Eraikin zaharretan konponketak egin beharko lirateke energiaren aurrezpena kontuan izanik.
- Orokorrean saiatu behar da eguzkiaren energia aprobetxatzen, egunez leihoak irekita izanez argi naturala eta beroa izateko, eta teilatuak konpontzen diren horietan eguzki plakak jarri.
- Haztegi ikastetxean dauden eguzki plakak ez daude funtzionamenduan, konpondu eta martxan jarri beharko lirateke.
- Eraikuntza berriak egiten direnean Bioklimatikoak izan beharko lirateke, hau da, energia aprobetxatu, ur zirkuitu itxiak, ur edangarria beharrezkoa den lekuetan bakarrik...
- Informazio kanpaina bat egin beharko litzateke energia eraginkortasun handia duten elektragailuak erostea komeni zaigula jendea kontzientziatzeko.
- Enpresei informazioa zabaldu eta ahal denean diru laguntzak eman eguzki plakak jartzeko eta energia aurrezten duten makinak erosteko.

KONPROMISOAK.

Guzti honen aurrean gu ere konpromiso batzuk hartzen ditugu energiaren egoera hobetzeko asmoz:

- Energia behar denean bakarrik erabiliko dugula, telebista, musika aparatuak, eta abar behar ez direnean ondo itzaliz.
- Kiroldegira, kultur etxera eta udal zerbitzuak erabiltzen ditugunean, nabaritzen badugu energia gehiegi gastatzen ari dela (beroa dagoelako alda-lekuetan, argi naturala eta bonbillak piztuta batera...) abisatu egingo dugula.

Eta bukatzeko alkateari bi galdera hauek egin nahi dizkiogu.

- Ea posiblea den etxe egileak behartzea eguzki plakak jartzen eta energia aurrezten duten hainbat irizpide kontuan hartzen etxe berriak egiterakoan
- Udaletxeko kanpoko atean jarri duten aire gortina horrek eraginkorra den eta hala bada ea zergatik ez diren saiatzen beste lekuetan ere jartzen.

Ekarpen hauek ontzat hartuko dituzuelakoan, zuen erantzun idatzia espero dugu. Eskerrik asko denon partetik.